

EKONOMIA SUSTATZEKO PLANARI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Ekonomia Sustatzeko Planari Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzen inguruko MOZIO hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko urtarrilaren 15eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, iaz, 27.000 euroko ekarpena egin zion Udalak-Sustapenak aurkeztutako ekonomia sustatzeko planari. Hau da, Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Departamendua, Bilduren gobernuaren azken urtean, 589.716 euroko diru laguntzatik, eta ezertxo ere ez eman ondoren, 27.000 euroko diru laguntza ematera pasatu da. Egoera larri honetan, Udalbatzak honako mozio hau onartu zuen, EH Bildu udal taldeak aurkeztutakoa: *"Donostiako Udalbatzak Alkateari eskatzen dio behingoz gaiari hel diezaiola, lehentasun osoz, eta bi hilabeteko epean Aldundiarekin akordioa itxi dezala, benetako ekarpenak lortuz, ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin."*

Orduz geroztik, alkatearen eta Aldundiko Ekonomia foru diputatuaren ohiko argazkia ikusi genuen hedabideetan, baina emaitzarik gabekoa. Duela gutxi jakin dugu Aldundiko Ekonomia Departamentuaren ekarpena 57.000 eurokoa izango dela; hau da, Bilduk, foru gobernuaren azken urtean, emandako diru laguntzaren %10era iritsi gabe. Sinesgaitza. Kontuan hartuta, batik bat, langabezia dela gure hiritarren kezka nagusietako bat.

EAJk eta PSEk gobernatzeko sinatutako akordioak hirugarren puntuan ("Berrindartzeko ekonomikorako eta giza garapenerako plana") honela dio: "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sustapen ekonomikorako planak garatzeko bai Donostia mailan bai Gipuzkoa mailan ere".

Batzordean, alkateak *Etorkizuna Eraikiz* deitutako programaren harira Aldundiarekin hitzarmen bat sinatuko zuela adierazi zuen, argitu gabe zertan datzan akordio hori eta inongo xehetasunik eman gabe. Beraz, erantzuna ikusita eta aurrekariak kontuan hartuta, ezin dugu baikorrak izan.

Udalbatzak, 2017an, gai honi buruz EH Bilduk aurkeztutako bi mozio onartu zituen aho batez:

-Martxoan (arestian aipatutakoa)

1-"Donostiako Udalbatzak Alkateari eskatzen dio behingoz gaiari hel diezaiola, lehentasun osoz, eta bi hilabeteko epean Aldundiarekin akordioa itxi dezala, benetako ekarpenak lortuz, ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin."

-Ekainean

1-"Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio martxoan onartutako mozioa lehenbailehen bete dezala eta lortutako ekarpenak 2017ko sustapen planean txerta daitezela, beste urtebete gal ez dadin".

Argi dago alkateak ez dituela mozio hauek bete eta, gaur gaurkoz, ez duela Foru Aldundiarekin inongo hitzarmen zehatzik Donostiako ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin. Eta argi dago, berriro ere, alkateak ez dituela behar bezala defendatzen donostiarren interesak.

Honegatik guztiagatik hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

-1. Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio bete dezala, behingoz, udalbatza honek onartutakoa eta itxi dezala Donostiako ekonomia sustatzeko plana eraginkorra izan dadin Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egin beharreko akordioa.

-2. Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio argi eta garbi egin dezala Donostiaren eta donostiarren interesen alde edozein erakunderen aurrean.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia